## IRURAKO UDALA

*Irurako Trinketea-Frontoia erabiltzeko Araudiaren behin betiko onarpena.*

Udalaren osoko bilkurak, 2012ko uztailaren 17an, hasierako onarpena eman zion Irurako Trinkete-Frontoia erabiltzeko araudiari.

Oinarri horiek 30 lan eguneko epean jendaurrean jarri ziren, 2012ko abuztuaren 31ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako 167 zenbakidun iragarkiaren bidez, eta ez denez aurkeztu inolako erreklamaziorik zein iradokizunik, aipatutako oinarriak behin betiko onartutzat ematen dira.

Beraz, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, iragarki honetan eranskin gisa argitaratzen da araudiaren testu osoa.

Administrazio bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Irura, 2012ko urriaren 24a.—Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Alkatea.

(482) (10015)

### LEHENENGO TITULUA
### XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*

Irurako Udaleko Kirol Zerbitzuaren helburu nagusia da Irurako herritar guztiei kirola egiteko aukera ematea, kirola bere osotasunean sustatuz.

*2. artikulua.*

Araudi honen helburua erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak eta udaleko kirol-instalazioak erabiltzeko baldintzak arautzea da.

*3. artikulua.*

Irurako Kirol Zerbitzuak xedapenak edo erabakiak emateko eskubidea du, araudi hau argitzeko, aldatzeko edo garatzeko. Araudia bera eta arau zehatzak (ordutegiak, prezio publikoak, etab.) publikoaren eskura egongo dira, bulegoetan nahiz instalazioetako harreran.

*4. artikulua.*

Kirol-instalazioak erabiltzeko eskubidea dute kirola sustatzea eta garatzea helburu duten pertsonek, ikastetxeek, kirol-erakundeek eta bestelako erakundeek, instalazioetara sartzeko baldintzak betetzen badituzte betiere.

Era berean, instalazioak kirolaz bestelako helburuetarako erabil daitezke aldizka, baldin eta baldintza partikularrak betetzen badira.

Kiroletarako ez diren instalazioak edo horien instalazio osagarrietara atxikita ez daudenak bestelako helburu bateragarrietarako erabil daitezke.

## AYUNTAMIENTO DE IRURA

*Aprobación definitiva del Reglamento de utilización del Trinkete y Frontón de Irura.*

El Pleno municipal en sesión de fecha 17 de julio de 2012, aprobó inicialmente el Reglamento de utilización del Trinkete y Frontón de Irura.

Dichas bases quedaron sometidas a información pública durante 30 días hábiles mediante anuncio publicado en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 167 de fecha 31 de agosto de 2012, y al no haber sido presentada alegación o reclamación alguna, las citadas bases quedan definitivamente aprobadas.

En consecuencia, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica como anexo al presente anuncio el texto completo del Reglamento.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la publicación, recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Irura, a 24 de octubre de 2012.—La Alcalde, Ainhoa Ugalde Gorostiaga.

(482) (10015)

### TÍTULO PRIMERO
### DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*

El objetivo principal del Servicio Municipal de Deportes del Ayuntamiento de Irura es posibilitar a toda la ciudadanía de Irura el acceso a la práctica deportiva, promoviendo para ello el desarrollo del deporte en su más amplia acepción.

*Artículo 2.*

El presente reglamento tiene por objeto el regular los derechos y obligaciones de las personas usuarias y las condiciones de uso de las instalaciones deportivas municipales.

*Artículo 3.*

El Servicio Municipal de Deportes de Irura se reserva el derecho a dictar disposiciones o resoluciones para aclarar, modificar o desarrollar el presente reglamento. El mismo, así como las normativas específicas (horarios, precios públicos, etc.) estará a disposición del público, en sus oficinas y en la recepción de cada una de las instalaciones.

*Artículo 4.*

Tienen derecho al uso de las instalaciones deportivas, todas las personas, centros de enseñanza, entidades deportivas y otras entidades que contemplen entre sus objetivos la promoción y el desarrollo de la práctica deportiva, y que cumplan las condiciones de acceso a las mismas.

De igual forma y con carácter puntual, las instalaciones podrán destinarse a usos no deportivos que cumplan los requisitos particulares de los mismos.

Las partes de las instalaciones que no estén afectas a los usos deportivos o a sus instalaciones complementarias podrán dedicarse a otros usos compatibles.

*5. artikulua.*

Urtero, Udalbatzak Kirol Zerbitzuen prezio publikoak edo tasak onartuko ditu. Prezio publikoak edo tasak onartzen direnean, Udaleko Kirol Zerbitzuak behar diren neurriak hartuko ditu horiek argitaratzeko eta jakinarazteko.

## BIGARREN TITULUA
## ERABILTZAILEAK

*6. artikulua.*

Erabiltzaile mota hauek daude:

1. Erabiltzaile orokorrak.
2. Kirola egiten duten erabiltzaileak.
3. Kirol-instalazioak.
4. Ikastetxeak.

*7. artikulua.*

1. Edonor sar daiteke eraikinetara, diziplina-arrazoiengatik debekurik ez badu.

2. Edonola ere, kirola egiten dutenak bakarrik sar daiteke kirol-instalazioetara eta horien zerbitzuetara, eta Araudi honetan jasotako baldintzak bete beharko dituzte.

3. Kirola egiten duten erabiltzaileek dagokion tasa ordaindu beharko dute, araudi honetan, eta, hala badagokio, Zerga-ordenantzan ezarritakoaren arabera.

Era berean, Udalak abonuak ezar ditzake, banakakoak edo familiarrak.

*8. artikulua.*

1. Udal Kirol Zerbitzuari dagokionez, legez eratuta eta Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistroan erregistratuta dauden kirol-elkarteak dira lehiaketa-kirolaren ordezkari bakarrak.

2. Aurreko baldintzak betetzen dituzten kirol-elkarteek Udaleko Kirol Zerbitzuaren instalazioak erabil ditzakete beren jarduerak aurrera eramateko, Udaleko Kirol Zerbitzuak ezarritako baldintzak betetzen badituzte betiere.

3. Jarduera-ordutegien banaketa hitzarmen bidez egingo da edo Udaleko Kirol Zerbitzuaren Zuzendaritzarekin bilera eginez.

4. Justifikatutako arrazoiak badaude, Udaleko Kirol Zerbitzuak kirol-erakundeen jarduerak bertan behera utz ditzake, haiei jakinarazi ostean.

5. Lehiaketa ofizialen kasuan, kirol-elkarteek idatziz eta aldez aurretik jakinarazi beharko dute zer jarduera eramango dituzten aurrera.

6. Entrenamenduetako eta lehiaketa ofizialeko ordutegiak kirol-instalazioen ordutegietara eta jardueretara egokitu beharko dira. Ordutegi hori denboraldi batean bakarrik mantenduko da, eta ez dute antzinatasun-eskubiderik izango.

7. Kirol-elkarteek bere gain hartzen dute antolatzen dituzten kirol-egintzen gaineko erantzukizun zibila. Horretarako, Udalak erantzukizun zibileko poliza kontratatzeko eska dezake.

*Artículo 5.*

Anualmente el Pleno Municipal aprobará los precios públicos o tasas de los Servicios Deportivos ofertados. Una vez aprobados los precios públicos o tasas el Servicio Municipal de Deportes adoptará las medidas oportunas para la publicación e información de los mismos.

## TÍTULO SEGUNDO
## DE LAS PERSONAS USUARIAS

*Artículo 6.*

Se distinguen los siguientes tipos de usuarios/as:

1. Usuarios en general.
2. Usuarios practicantes.
3. Entidades deportivas.
4. Centros escolares.

*Artículo 7.*

1. Cualquier persona tendrá libre acceso a los edificios, salvo que tenga prohibido el mismo por motivos disciplinarios.

2. En todo caso a las instalaciones propiamente deportivas y a sus servicios, solamente tendrá acceso los practicantes de los mismos y con las condiciones señaladas en este Reglamento.

3. Los usuarios practicantes tendrán el deber de abonar la tasa correspondiente, de acuerdo con lo dispuesto en el presente Reglamento y en su caso en la Ordenanza Fiscal correspondiente.

Así mismo por el Ayuntamiento se podrá establecer un abono que podrá ser individual o familiar.

*Artículo 8.*

1. Las entidades deportivas legalmente constituidas y que estén registradas en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco, serán consideradas las únicas representante del deporte de competición ante el Servicio Municipal de Deportes.

2. Las entidades deportivas que cumplan los requisitos anteriores podrán utilizar las instalaciones del Servicio Municipal de Deportes para desarrollar sus actividades, siempre que se cumplan las condiciones establecidas por el Servicio Municipal de Deportes.

3. La distribución de los horarios de actividades se realizará bien mediante convenio o mediante una reunión con la Dirección del Servicio Municipal de Deportes.

4. El Servicio Municipal de Deportes podrá suspender, por causas justificadas, las actividades de las entidades deportivas previa comunicación a las mismas.

5. Para las competiciones oficiales las entidades deportivas deberán comunicar por escrito, con una antelación suficiente, las actividades a desarrollar.

6. Los horarios de entrenamientos y competiciones oficiales deberán ajustarse a los horarios y actividades propios de las instalaciones deportivas. Estas horas son para una temporada y no darán derecho de antigüedad.

7. La responsabilidad civil de los actos deportivos organizados por las entidades deportivas recaerá sobre los mismos. A este efecto el Ayuntamiento podrá exigir la contratación de la póliza de responsabilidad civil correspondiente.

8. Udaleko kirol-instalazioetan publizitatea jarri nahi duten kirol-elkarteek baimena eskatu beharko dute. Baimena lortzen badute, kontrako akordio zehatzik egon ezean, irizpide hauek bete beharko dituzte:

a) Joko-esparruan eta haren inguruan bakarrik jar daiteke publizitatea, eta lehiaketa ofizialen kasuan bakarrik.

b) Klubek eskuragarri izango dituzte publizitatea jartzeko lehiaketa ofiziala gauzatzeko erreserbatutako denboran zehar.

c) Elkarteak jarri eta kenduko ditu publizitate-elementuak, joko-eremuak, hormak edo pintura hondatu gabe.

d) Publizitateak apaingarritasun eta estetika minimo batzuk bete beharko ditu.

Bestalde, alkoholari eta tabakoari buruzko arauak beteko dituzte, baita ikuskizun publikoekin lotutakoak ere.

9. Kirol-elkarteetako taldeek instalazioak erabili ahal izateko, horien arduradun den pertsona helduarekin egon beharko dute.

*9. artikulua.*

1. Irurako ikastetxeek Udaleko Kirol Zerbitzuko instalazioak erabil ditzakete, instalazioen ordutegiaren barruan haiek eskolak dituzten orduetan, eta ez dute prezio publikorik edo tasarik ordaindu beharko, Udalarekin aldez aurretik hitzartutako balditzetan.

2. Eskola-taldeek instalazioak erabili nahi badituzte, ikastetxeak izendatutako arduradun batekin bertaratu beharko dira.

3. Eskolako kirol-jarduerak udaleko kirol-instalazioetan egin daitezke, zehaztutako baldintzetan.

4. Lehiaketa ofizialen kasuan, antolatzaileek idatziz eta aldez aurretik jakinarazi beharko dute zer jarduera eramango dituzten aurrera.

## HIRUGARREN TITULUA

## KIROL JARDUERAK

### 1. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

*10. artikulua.*

1. Udaleko Kirol Zerbitzuak, ahal duen neurrian, urteko kirol-jarduerak antolatuko ditu, biztanle-talde guztiek kirola praktika dezaten.

2. Kirol-jarduera horien helburu nagusia erabiltzaileen asebetetzea lortzea izango da.

3. Udaleko Kirol Zerbitzuak kirol-jardueren programazioa modu eraginkorrean jakinaraziko du.

4. Kirol-jarduerek prezio publikoak edo tasak izango dituzte. Ikasleek ikastaroetan parte hartzen dutela egiaztatzen duen txartela jasoko dute.

8. Las Entidades Deportivas que deseen colocar publicidad en las instalaciones deportivas municipales deberán solicitar la autorización correspondiente. En caso de obtener la autorización, salvo acuerdo específico contrario, deberán cumplir los siguientes criterios:

a) El recinto de juego y su contorno es el único lugar en donde se permite la colocación de publicidad y solo para competiciones oficiales.

b) Los espacios a los que pueden acceder los clubes para colocar su publicidad, estarán a su disposición por el tiempo por el que se efectuó la reserva para la competición oficial.

c) La colocación y retirada de los elementos publicitarios correrán a cargo de la entidad, que realizará esta operación sin deterioro del terreno de juego, paredes o pinturas.

d) La publicidad deberá atenerse a unas mínimas normas de decoro y estética.

Por otra parte cumplirán la normativa sobre alcohol y tabaco, y cualquiera otra relacionada con los espectáculos públicos.

9. Ningún grupo perteneciente a una entidad deportiva podrá utilizar la instalación sin la presencia de una persona adulta responsable del mismo.

*Artículo 9.*

1. Los Centros Escolares de Irura, en su horario lectivo comprendido dentro del horario de las instalaciones, podrán utilizar las instalaciones del Servicio Municipal de Deportes sin abono de precio público o tasa y en las condiciones que se determinen, previo Convenio con el Ayuntamiento.

2. Los grupos de escolares accederán y utilizarán las instalaciones acompañados por una persona responsable designada por el Centro.

3. Las actividades de deporte escolar tendrán acceso a las instalaciones deportivas municipales en las condiciones que se determinen.

4. Para las competiciones de escolares quienes organizan deberán comunicar por escrito, con una antelación suficiente, las actividades a desarrollar.

## TÍTULO TERCERO

## DE LAS ACTIVIDADES DEPORTIVAS

### CAPÍTULO 1. DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 10.*

1. El Servicio Municipal de Deportes, en la medida de sus posibilidades, organizará anualmente actividades deportivas orientadas al desarrollo de la práctica deportiva en todos los segmentos de la población.

2. Dichas actividades deportivas tendrán como objetivo primordial conseguir la mayor satisfacción de las personas usuarias.

3. La programación de las actividades deportivas será difundida de forma eficiente por el Servicio Municipal de Deportes.

4. Las actividades deportivas estarán sujetas a precios públicos o tasas. Las y los cursillistas recibirán un pase que les acredite de dicha condición.

5. Kirol-jardueretan izena emateko gehienezko eta gutxieneko pertsona kopuruak ezarriko dira, eta gutxienekoa lortzen ez bada, ez da jarduera gauzatuko.

6. Kirol-jardueretan edozein unean eman daiteke izena, plazak geratzen badira, eta erabiltzaileak jarduera amaitu arte izena eman duela iritziko zaio.

7. Jarduera baten prezio publikoa edo tasa ordaintzen ez bada, erabiltzeari baja emango zaio automatikoki.

8. Kirol-jarduera batean izena eman aurretik, Udaleko Kirol Zerbitzuak erabiltzaileei mediku-azterketa egiteko eska diezaieke, kirola egin dezaketela egiaztatzeko.

9. Justifikatutako arrazoiak baleude, Udaleko Kirol Zerbitzuko zuzendaritzak kirol-jarduera bat aldi batez edo behin betiko eten dezake. Kasu horretan, denbora horretarako ordaindutako diru-kopuruak itzuliko dira.

## LAUGARREN TITULUA

## INSTALAZIOETARA SARTZEKO ETA HORIEK ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK

*11. artikulua.*

1. Erabiltzaileek eraikinetara askatasunez sar daitezke baimendutako irekiera-ordutegien barruan, baldin eta diziplinazko arrazoiengatik sarrera debekatuta ez badute. Edonola ere, erabiltzaileek araudiak eskatutako jarrera errespetatu beharko dute.

2. Ezin da baloiekin, pilotekin eta beste objektu batzuekin jolastu aldageletan, korridoreetan eta harmailetan, ezta kirol-eremutzat jotzen diren beste zonetan ere. Kirol-eremu batek erabilerarako ordutegi zehatz bat badu ezarrita, amaieran ordainduko da, baimen espresik izan ezean. Saioa instalazioaren ixterakoan amaitzen bada, 10 minutu lehenago amaitu behar da gutxienez.

3. Antolatzaileek bere gain hartuko dute lehiaketak eta ikuskizunak ospatu bitartean publikoak instalazioetan egindakoen gaineko erantzukizuna.

4. Erreserba egin duten pertsonek edo erakundeek bere gain hartzen dute dolu, arduragabekeria edo erabilera txarragatik instalazioetan egindako edozein kalte. Lehiaketa ofizialen kasuan, kalte horien berri emango zaie federazioari eta klubei, eta erakunde kontratatzailea izango da kalteen erantzulea.

5. Udaleko kirol-instalazioak erabiltzeko, kirol-jantziak eta oinetako zehatzak (ez kale-oinetakoak) eramango dira, kirol bakoitzari dagozkion ezaugarriak errespetatuz. Baimen espresa beharko da kirol-jantziak ez diren beste jantzi batzuk erabiltzeko.

6. Udaleko kirol-instalazioetako erabiltzaileek armairuak erabiliko dituzte gauzak gordetzeko, kirola egiten duten bitartean. Kirola egiteari utzi bezain pronto, armairua libre utzi beharko da.

7. Debekatuta dago erretzea, jatea, eta kristalezko objektuak sartzea Udaleko kirol-instalazioetara, horretarako adierazitako zonetan izan ezik. Ezin da instalazioetan abereak sartzea eta aldageletatik kanpo jantzi edo biluztu, sexu bateko pertsonak ezin dute beste sexuarentzako aldageletara sartu (6 urtetatik aurrera) eta debekatuta dago ere osasun- eta higiene-arauak eta intimitatea urratzen duten beste edozein jokaera.

Edonola ere, itsuei laguntzen dieten txakurrak egokitutako tokietara sar daitezke.

5. Las actividades deportivas tendrán un número máximo y mínimo de personas inscritas para su desarrollo y en caso de que no se alcance el mínimo establecido la actividad no se impartirá.

6. En cualquier momento, si hubiera plazas, se podrá inscribir en una actividad deportiva, entendiéndose esta inscripción hecha hasta la finalización de la actividad.

7. El impago del precio público o tasa de una actividad supondrá la baja automática en la misma.

8. El Servicio Municipal de Deportes podrá exigir a cualquier persona usuaria, antes de su inscripción en una actividad deportiva, un reconocimiento médico que acredite su aptitud para la práctica deportiva.

9. La dirección del Servicio Municipal de Deportes, por causas justificadas, podrá suspender temporalmente o definitivamente una actividad deportiva, en cuyo caso será reintegrado el importe de las cantidades abonadas correspondientes a este período.

## TÍTULO CUARTO

## SOBRE NORMAS GENERALES DE ACCESO Y UTILIZACIÓN DE LAS INSTALACIONES

*Artículo 11.*

1. El acceso a los edificios será libre en los horarios de apertura autorizados, salvo prohibición de acceso por motivos disciplinarios. En todo caso los usuarios deberán respetar la conducta exigida por este Reglamento.

2. No está permitido jugar con balones, pelotas y otros objetos, en vestuarios, pasillos, graderíos ni todas aquellas zonas que no se consideren espacios deportivos. La utilización de un espacio deportivo que tenga un horario fijado para su uso debe abandonarse una vez se haya cumplido, salvo autorización expresa. Cuando el final de la utilización coincida con el cierre de la instalación la sesión finalizará al menos 10 minutos antes de la hora de cierre.

3. La responsabilidad de los actos que el público realice en las instalaciones durante la celebración de competiciones y espectáculos recaerá sobre las entidades organizadoras.

4. Cualquier deterioro o rotura en las instalaciones que se origine por dolo, negligencia o mal uso, serán por cuenta de la persona o entidad que efectuó la reserva de la utilización. En el caso de competiciones oficiales estos daños serán comunicados a la Federación y Club correspondientes, siendo la entidad contratante la responsable de los desperfectos que se originen.

5. La utilización de las instalaciones deportivas municipales se hará siempre con atuendo deportivo y calzado específico (no de calle) y respetando la especificidad de cada una de ellas. Para utilizar atuendo no deportivo se requerirá autorización expresa.

6. Las personas usuarias de las instalaciones deportivas municipales utilizarán las taquillas para guardar sus pertenencias mientras realizan la práctica deportiva. Una vez finalizada la práctica deportiva, la taquilla deberá quedar libre.

7. No está permitido fumar, comer ni introducir objetos de cristal en el interior de las instalaciones deportivas municipales, excepto en las zonas señaladas al efecto. Está prohibido introducir animales en las instalaciones, vestirse o desvestirse fuera de los vestuarios, la entrada de personas de un sexo a espacios reservados exclusivamente a otro sexo (a partir de los 6 años) y cualquier otra conducta que vaya en contra de las normas de salud, urbanidad, higiene, limpieza y en contra de la intimidad.

En todo caso se permitirá el acceso a los lugares habilitados, a los perros-lazarillos que acompañen a los usuarios invidentes.

BOSGARREN TITULUA

ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1. KAPITULUA. ESKUBIDEAK

*12. artikulua.*

Harpidedun guztiek, txartela erakutsi ostean, eskubide hauek izango dituzte:

1. Udaleko kirol-zerbitzuetako instalazioetara sarrera librea, kasu bakoitzean ezarritako murrizketekin eta ordutegian.

2. Kuota murriztua izatea Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatzen dituen kirol-jardueretan izena ematerakoan eta matrikula egiterakoan.

*13. artikulua.*

Ezarritako prezio publikoa edo tasa ordaindu ondoren, harpidedun ez diren pertsona guztiek dute Udaleko kirol-zerbitzuetako instalazioak erabiltzeko aukera, publikoari zabaldutako ordutegian.

*14. artikulua.*

Erabiltzaile guztiek eskubide hauek dituzte:

1. Irurako Udaleko Kirol Zerbitzuak eskainitako zerbitzu guztiak erabiltzea, berariazko araudi bakoitzari jarraiki.

2. Instalazioetako zerbitzuetako langileei edo arduradunei edozein unetan identifikazio-txartela eskatzea, egoki iritzitako erreklamazioak edo iradokizunak egiteko.

3. Udaleko Kirol Zerbitzuetako langileek tratu zuzena ematea.

4. Udaleko Kirol Zerbitzuari edozein zalantza galdetzea eta iradokizunak edo erreklamazioak egitea, instalazioei edo zerbitzuei buruz.

5. Araudi honen ale bat jasotzea, eskatuz gero.

6. Haren hizkuntza-eskubideak errespetatzea, eta EAEko bi hizkuntza ofizialetako batean arreta jasotzea.

7. Mugikortasun murriztua duten pertsonek eta minusbaliatuek arreta pertsonalizatua eta lehentasunezkoa jasotzea.

8. Udaleko Kirol Zerbitzuei emandako datu pertsonalak babestea, indarrean dagoen araudia betez.

9. Indarrean dagoen legedian jasotako bestelako eskubideak.

2. KAPITULUA. BETEBEHARRAK

*15. artikulua.*

Harpidedunek eta erabiltzaileek betebehar hauek dituzte:

1. Instalazioak eta zerbitzuak erabiltzea, araudia hau eta haren xedapenak betez, eta langileen erabilera-jarraibideak betetzea.

TÍTULO QUINTO

DE LOS DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS USUARIAS

CAPÍTULO 1. DE LOS DERECHOS

*Artículo 12.*

Todas las personas abonadas tendrán, previa presentación del carnet, los siguientes derechos:

1. Tener libre acceso a las instalaciones del Servicio Municipal de Deportes, con las limitaciones y en los horarios que en cada caso se señalen.

2. Disfrutar de una cuota reducida en la inscripción y matriculación en las actividades deportivas que organice el Servicio Municipal de Deportes.

*Artículo 13.*

Todas las personas no abonadas tendrán derecho, previo pago del precio público o tasa establecido a la utilización de las instalaciones del Servicio Municipal de Deportes dentro de los horarios que las mismas estén abiertas al público.

*Artículo 14.*

Todas las personas usuarias tienen derecho a:

1. La utilización, de acuerdo a cada normativa particular, de todos los servicios que oferte el Servicio de Deportes del Ayuntamiento de Irura.

2. Solicitar en cualquier momento la identificación de cualquier persona empleada o responsable de los servicios de las instalaciones, a los efectos de realizar las reclamaciones o sugerencias que estime oportuno.

3. Al trato correcto por parte del personal del Servicio Municipal de Deportes.

4. A plantear ante el Servicio Municipal de Deportes cualquier duda, sugerencia o reclamación sobre las instalaciones o servicios del mismo.

5. A obtener, si así lo solicita, un ejemplar del presente reglamento.

6. El respeto a sus derechos lingüísticos, incluido el derecho a utilizar y a ser atendido en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

7. Disfrutar las personas usuarias de movilidad reducida así como las personas minusválidas que lo precisen de atención personalizada y preferente.

8. La protección de los datos personales facilitados al Servicio Municipal de Deportes, conforme a lo previsto en la normativa vigente.

9. Cualesquiera otros derechos que vengan recogidos en la legislación vigente.

CAPÍTULO 2. DE LAS OBLIGACIONES

*Artículo 15.*

Constituyen obligaciones de las personas abonadas y usuarias en general las siguientes:

1. Utilizar las instalaciones y servicios conforme a las normas de este Reglamento y las disposiciones que lo desarrollen, y a seguir las indicaciones de uso del personal de las mismas.

2. Instalazioa eta haren ekipamendua zaintzea. Arduragabe edo doluz aritu den pertsonak bere gain hartzen du aduragabekeria edo dolu horrek eragindako kalteen gaineko erantzukizuna.

3. Gainontzeko erabiltzaileen eskubideak errespetatzea.

4. Ezarritako tasak eta prezio publikoak ordaintzea, behar den epeetan.

5. Udaleko kirol-zerbitzuko langileei funtzionamendu-arazoen, hausturen, gabezien edo arau-hausteen berri ematea.

6. Instalazioetan behar bezala portatzea, eta langileei lan egiten uztea.

7. Indarrean dagoen legedian eta araudian jasotako beste betebeharrak.

## SEIGARREN TITULUA

## KIROL EKIPAMENDUAK ERABILTZEKO ARAUAK

### 2. KAPITULUA. GIMNASIOAK

*16. artikulua.*

1. Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatutako edo baimendutako jarduera bat gimnasioan egiten bada, monitoreak eta jardueran izena eman dutenak bakarrik sar daitezke bertara.

2. Materiala dagokion tokian utzi beharko da, saioa amaitzerakoan.

### 3. KAPITULUA. FITNESS GELA

*17. artikulua.*

1. Instalazioan eskuoihala erabili behar da, izerdia kentzeko.

2. Debekatuta dago Fitness-gelan janaria edo kristalezko objektuak sartzea. Halaber, armairuetan gorde behar dira poltsak, motxilak, arropa eta oinetakoak.

3. Aparatuak erabiltzerakoan lesioak jasan daitezke, horien pisuagatik edo konplexutasunagatik. Horregatik, 16 urtetik beherakoek debekatuta daukate areto honetan sartzea. Dena den, zuzendaritzaren baimen berezia dutenek lokala erabil dezakete.

4. Materiala dagokion tokian utzi beharko da, saioa amaitzerakoan.

5. Udaleko kirol-zerbitzuko teknikariek banakako programak egingo dizkiete hala eskatzen duten erabiltzaileei, ezarritako prezio publikoa edo tasa ordaindu ondoren.

6. Orokorrean, aparatu kardiobaskularrak 20 minutuz erabili daitezke gehienez ere.

2. Cuidar las instalaciones y su equipamiento. La responsabilidad de todo daño producido por negligencia o dolo será de quien haya actuado de manera irresponsable o dolosa.

3. Respetar los derechos de las demás personas usuarias en su conjunto.

4. Satisfacer en su momento las tasas o precios públicos establecidos.

5. Comunicar al personal del Servicio Municipal de Deportes las anomalías de funcionamiento, roturas, deficiencias o incumplimiento de lo dispuesto en este Reglamento.

6. Comportarse correctamente en las instalaciones favoreciendo la labor del personal empleado.

7. Cualesquiera otras obligaciones que vengan reconocidas en la legislación vigente y por lo dispuesto en este reglamento.

## TÍTULO SEXTO

## DE LAS NORMAS DE UTILIZACIÓN DE LOS EQUIPAMIENTOS DEPORTIVOS

### CAPÍTULO 2. DE LOS GIMNASIOS

*Artículo 16.*

1. Cuando se realiza una actividad organizada o autorizada por el Servicio Municipal de Deportes en los gimnasios, el acceso a los mismos queda restringido a los monitores y las personas usuarias inscritas en la actividad a desarrollar.

2. El material, una vez terminada la sesión, deberá dejarse en su lugar correspondiente.

### CAPÍTULO 3. SALA DE FITNESS

*Artículo 17.*

1. Es obligatorio el uso de la toalla en esta instalación para limpiar el sudor de cada persona usuaria.

2. Está prohibido llevar comida o introducir objetos de cristal en el interior de la sala de Fitness, debiendo dejarse en las taquillas las bolsas, mochilas, ropa, calzado.

3. Teniendo en cuenta el riesgo de lesiones que conlleva la utilización de los aparatos, tanto por el peso como por la complejidad de ellos, está prohibido que entren en la sala menores de 16 años. Sin embargo, quienes tengan un permiso especial de la dirección podrán utilizar este local.

4. El material, una vez utilizado, deberá dejarse en su lugar correspondiente.

5. El personal técnico del Servicio Municipal de Deportes realizará programas individuales a aquellos/as usuarios/as que los soliciten, previo pago del precio público o tasa establecido.

6. Para que todas las personas usuarias tengan posibilidad de utilizar los aparatos, por lo general, la utilización máxima de los aparatos cardiovasculares será de 20 minutos.

4. KAPITULUA. FRONTOIA

*18. artikulua.*

1. Frontoian debekatuta dago zoladura zikintzen, markatzen edo hondatzen duten oinetakoak erabiltzea, baita espazio horiei ez dagozkion kirol-tresnak erabiltzea, zuzendaritzak baimendutakoak salbu.

Eskupilotak eta gomazko pilotak lehentasuna izango dute beste kirolen gainean.

2. Udal-frontoiaren ezaugarriak kontuan hartuta, debekatuta dago modalitate hauetan jolastea:

— Erremontea.

— Zesta punta.

3. Espazio hauei dagozkien kirol-jarduerak sustatzen dituzten erakundeek lehentasuna izango dute instalazioak erabiltzeko. Horien ordutegiak ezarri ostean, edozein erabiltzailek erreserba ditzake libre geratu diren orduak.

6. KAPITULUA. TRINKETA

*19. artikulua.*

1. «Ametsa» udal-trinketak pilota-jokoa du erabilera nagusia, batez ere xare modalitatean. Horrez gain, bestelako kirol-jarduerak eta ekitaldiak ere antola litezke, baita kulturarekin, gizartearekin edo aisialdiarekin lotutako ekimenak ere.

2. Pilota-modalitate hauek praktikatu daitezke soilik:

paleta goma-larrua, xare, eskupilota eta paxaka, Pilota Federazioak homologatutako materialarekin betiere.

